

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdiko ekitaldietan %6,4 igo da parte-hartzea

Guztira, 23.034 pertsona izan dira pasa den uztailaren 15etik 31ra bitartean antolatutako 54 ekitalditan

Viernes, 05 de agosto de 2011

[Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdiaren](#) XII. Edizioa uztailaren 15etik 31ra bitartean izan da, eta ekitaldietara joandako publikoa %6,4 gehitu da, iazko urtearekin alderatuta. Guztira, 23.034 pertsona (aurreko edizioan baino 1.400 gehiago) joan dira programako 54 ekitalditara; hots, hamar espaziotan banatutako antzezpen, hitzaldi, errezitaldi eta erakusketetara.



"Dança da morte", Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdian antzeztutako ikuskizuna.

Aurtengo berrikuntzen artean, ondorengoak izan dira: Arte Dramatikoko Eskolen Topaketan (E-Class) parte hartzen duten ikasleentzako barroko aurreko antzerkiaren hastapen-ikastaroa, 0 eta 3 urte arteko ikusleentzako ikuskizun bat eta *El invisible príncipe del baúl* ikuskizunaren koprodukzioa, Almagroko Antzerki Klasikoaren Jaialdiarekin eta Almeriako Antzerki Klasikoaren Jardunaldiekin batera.

Sarrerak agortuta geratu ziren honako funtzio hauetarako: *Mujeres de Shakespeare*, Rafael Álvarezena; *El Brujo*, (uztailak 15 eta 16) eta *Macbeth*, Ur Teatro-rena (uztailak 29 eta 30). Era berean, ikuskizun hauetan eserleku guztiak beteta geratu ziren: *El vino del personaje* (Ardoaren Museoa), Gemma Cuervoren *La Celestina* eta Raquel Anduezaren eta Anfioneren kontzertua Uxueko Santa Maria elizan.

[La Cavan](#) eskainitako ikuskizunetan 3.534 pertsona bildu ziren; [Vianako Printzea ikastetxeko](#) polikiroldegian eskenatoki estalia jarri zen 220 eserlekurekin, eta 1.005 ikusle hurbildu ziren. [Carlos III.a Plazan](#) eta [Cantareria plazako](#) ikuskizunetan, 5.650 eta 1.300 ikusle izan ziren, hurrenez hurren.

[Errege Jauregian](#) eskainitako kontzertu eta errezitaldietan,

873 bisitari bildu ziren; [Ardoaren Museoan](#) antolatutako ekitaldietan, berriz, 290 lagun. Antzerki Klasikoko Konpainia Nazionalaren jantzien erakusketa [Erdi Aroko Galerietan](#) egon zen ikusgai, eta 5.542 bisitari joan ziren. Nao d'amores erakusketa Errege Jauregian egon zen, eta 2.000 lagun bildu ziren. Azkenik, Erriberriko kaleetan izandako ikuskizunetara 2.675 pertsona hurbildu ziren.

Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdia Nafarroako Gobernuak Kulturako Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Institutuzioaren bidez antolatutako programa da. Besteak beste, Kultura Ministerioak, Erriberriko Udalak eta Autopistas de Navarra enpresak babesten dute. Halaber, laguntzaile dira Espainiako Kultur Ekintza, Antzerki Klasikoaren Konpainia Nazionala, Erriberriko Errege Jauregia eta Nafarroa Izendapenaren Kontseilu Arautzailea.